

BILBO. Julia Madrazok horren ganeko mozinoa aurkeztuko dau



VERONICA MUÑOZ

Umeentzako haurtzaindegi publikoak eskatu ditu Madrazok.

Haurtzaindegi publikoak eskatuko ditu Ezker Batuak

Uriburuan dagozan 10 zentroetatik 9 pribatu dirala nabarmendu dau

Erredakzinoa |

Uriburuan dagozan haurtzaindegi gehienak, hamarretik bederatzi, pribatuak dira. Egoerea onartu ezina da, Julia Madrazo Ezker Batuko zinegotziaren ustetan. Horrexegaitik, 0 eta 3 urte arteko umeentzat eskola publikoak ipintea proposatuko deutse, datorren astean, udalbatzako taldeei.

«Bilboko Udalak hiru haurtzaindegi-eskolari baino ez deutse diru laguntasunak emoten, eskaintzaren %28 BBK taldearen ardurapean dago, eta 0 eta 2 urte artekoentzako plaza gehienak, hamarretik bederatzi, enpresa pribatuen esku dagoz», nabarmendu eban Madrazok.

EBko zinegotziaren ustetan, datu horrek argi izten dabe «oso eskasa dela erakunde publikoek Bilboko umeentzat eskaintzen dituen eskola eta haurtzaindegi zerbitzuak». Ez hori bakarrik. Datuok agerian izten dabenez, Donostian eta Gasteizen bestelakoa da udal agintariek hezkuntzaren arlo horretan emoten dituen laguntasunak.

Datueta oinarritutako kritikea

Madrazok prentsaurrekoa eskaini eban, atzo goizean, udalbatzarrean defendatuko dauan mozinoaren barri emoteko. Egoerea zertan dan ikusteko, Eusko Jaurlaritzaren datuak aztertut zitan EBko zinegotziak. Horreen arabera, Haur Hez-

kuntzan, 0 eta urte 1 arteko umeentzat 25 ikastetxe dagoz uriburuan, eta urte 1 eta 2 dituenentzat, barriz, 24 zentro.

Aitatutako ikastetxe horreetatik hiruk besterik ez dabe Udalaren laguntasuna jasotzen, Jaurlaritzaren txostenean agertzen diran datuen arabera.

Ikastetxe horreez ganera, Bilbon beste 20 dagoz kontzertatuak diranak, 0 eta 2 urte arteko umeentzat, baina Julia Madrazok azpimarratu gura izan eban lez, «Bilbon ez dago 0 eta 2 urte bitarteko umeei zuzendutako inongo ikastetxe publikorik, nahiz eta bi urte baino gehiago dituen umeentzako 35 zentro egon uriburuan», nabarmendu eban Madrazok.

AHTren inguruan Bilboko Udalak hartutako konpromisoa gogor kritikau dau Batasunak

Erredakzinoa |

Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak Abiadura Handiko Trenaren eta Abandoko intermodalaren inguruan hartutako konpromisoak «Renfen gorpuzten diran Espainiako interesei» erantzun gura deusela salatu eban atzo Lander Etxebarria Bilboko Batasuneko bozeroaleak. Horrezaz ganera, intermodalaren

gaia «bigarren tokian» izten dauela aitatu eban.

Egoerarik baikorrenean, «EAJn ohikoak diran propaganda operazioaren aurrean» egongo ginala adierazo eban zinegotziak. «Egoerarik txarrean, Espainiari Bilboko beste zati handi bat emoteko atarian egongo ginatke», ganeratu eban Etxebarriak.

Batasuneko bozeroalearen berbetan, «euskaldunak gure gauzak kudeatzeko gai garela

esan beharko leutsoke EAJk Espainiako Gobernuari».

Horrekin lotuta, «Koroaren, Guardia Zibilaren eta Poliziaren mantenurako» 132 milioi euro (22.000 milioi pezeta) pagetan ditu Bilboko Udalak, Etxebarriak gogoratu eban. «Intermodala eta urirako beharrezkoak diran hainbat azpiegitura ordaindu ahal dira diru guzti horrekin», ganeratu eban Bilboko Batasuneko bozeroaleak.

ALDUNDIA. PNC, LISMI eta SOBI pentsinoak

Laguntzak oinarritzko errentearen kopururaino osatzeko eskatu dabe

Erredakzinoa |

Pentsino ez-kontributiboak (PNC), LISMI eta SOBI izeneko pentsinoak eta sorospenak jasotzen dituan pertsona baktxarentzat gitxienez oinarritzko errentearen kopururainoko osagarria eskatu dau Batasuna taldeak, Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizartekintza Batzordean.

Aurreko egunean, Gizartekintza Aldunak emondako datuen arabera, gaur egun 7.450 pertsona dira Pentsino Ez Kontributiboak eta LISMI pentsino eta sorospen jasotzaileak, eta guztira, 325 eta 348 euro (54.000 eta 58.000 pezeta bitartean) diru kopurua daukie, batenaz besteko.

Batasunak 2000. urteko aurrekontuen inguruan egin ziran negoziatzinoak, eta horretan, zortzi milioi euroko partida (1.300 milioi pezeta inguru) lortu eban pentsino eta sorospenetarako, gitxi gorabehera.

Halandabe, Gizartekintza Aldunak Batzar Nagusietan eginiko batzordean, 2002. urteko datuak kontutan hartuta, Batasuna taldeko Jon Fano batzarkideak gogorae-ragin deutso Bizkaiko Foru Aldundiari holako pentsinoak eta sorospenak jasotzen

dituenei Lanbidearteko Gitxieneko Soldata (LAGS) hama-lau pagatarainoko osagarria ordaindu eta bermatu beharko litzakieela. Horretarako, zuzenketa partziala aurkeztu dau Batasuna taldeak Batzar Nagusietako Gizartekintza Batzordean.

Pentsinoen kopururainoko osagarria bermatu behar da

Jon Fano Batasuneko batzarkidearen pentsetan, Gizartekintza Batzordean Batasunak proposutako kopururainoko osagarria onartuko ez balitz Oinarritzko Errentea jasotzen dabenentzat, 2001. urteko osoko batzarrean onartutako kopururainoko osagarria bermatu beharko litzakieela, behinik behin. Holan, LAGSaren %85 jasoko leukie pentsinoen eta sorospenen jasotzaileek.

Holan eta guztiz be, Jon Fano Batasuneko batzarkideak adierazo dauenez, oinarritzko errentearen kopururainoko osagarria jasotzeko eskubidea dabenen artean, SOBI izeneko pentsino eskasaren jasotzaileak be egon beharko lirateke. Horretarako, oinarritzko errentearen osagarriaren proposamena eskatu dau Fanok.

PORTUGALETE. PPK eta PSOEk osatzen dabe

Udal Gobernuak haur euskaldunak baztertu egiten dituala salatu dabe

Erredakzinoa |

Portugaleteko Udalak, eta bereziki Partidu Popularrak, euskerarekiko eta euskal kulturarekiko daukien jarrerea kritikau eben atzo herri horretako Batasuneko ordezkariak. Izan be, Gabonetan, umeentzako bost antzerki lan egin ziran arren, lau erderra hutsean izan ziran, ezker abertzalekoek azaldu eban. *Poblado Indio* ikuskizunean egondako sei monitoretatik bakarra zala euskalduna ganeratu eben.

Izarra Gisasola Batasuneko zinegotziaren berbetan, «Portugaleten, haurren % 70 B eta D eredueta dagozala kontutan hartuta, argi eta

garbi ikusi leikegu PPK daukan jokabidea, hain zuzen be, euskerea eta euskal kultura bazterteaz». Horrezaz ganera, Olentzerok eta Errege Magoek daukien aurrekontuak parekatu ditue Batasunekoek. Portugaleteko Udalak Errege Magoetarako 3.475.685 pezeta emoten dituen bitartean, Olentzerorako, 400.000 pezeta baino ez ditu jartzen. Horri begiratu-ta, PPK eta PSOEek osatzen daben Udal Gobernuak euskaldunak diran umeak eta euren gurusoak «diskriminetan» dituala salatu dabe Portugaleteko Batasuneko zinegotziek, euskerearen eta euskal kulturaren alde dagozala esateaz batera.